

1. ETIKA ETA GIZARTE LANGINTZA

Ekintzen utilitarismoa, Arauen utilitarismoa, Etika deontologikoa, Bertuteen etika

Andoni zure kargupean dagoen erabiltzailea da. Drogazalea da eta azkenaldian depresioak jota dabil, batez ere duela bi hilabete bere bikotekideak abandonatu egin zuenetik. Andonik bere neska-lagun ohiaz galdetu dizu. Bien arteko haustura gertatu zenetik Andonik ez daki ezer berataz. Zuk badakizu neska-lagun ohiak beste mutil batekin harreman sentimental bat hasi berri duela, baina zalantzati zaude: ez duzu argi Andoniri egia esan behar diozun ala ez.

Galderak:

1. Nola justifikatuko zenuke, **ekintzen utilitarismoaren ildotik**, Andoniri gezurra esatea (hau da, bere neska-lagun ohiaz ezer ez dakizula esatea)?

Utilitarismoak hiru tesi nagusi defendatzen ditu: (1) Ekintzak moralki zuzenak edo okerrak dira soilik haien ondorioen arabera; (2) Ondorioen ebaluazioa egiteko, ekintzek sortzen duten zorientasun eta zorigaitz kantitatea soilik hartu behar da kontuan; eta (3) Ekintzaren eragina jasaten duten banako guztien zorientasunak/zorigaitzak balio berdina du. Beste aldetik, utilitarismoa onuren eta kalteen kalkuluan oinarritutako etika da: zorientasun kantitate total maximoa sortzen duen ekintza/politika da moralki zuzena. Ekintzaren utilitarismoaren aburuz, ekintza bakoitzaren zuzentasun morala ekintzaren ondorioen arabera baloratu behar da; hau da, ekintza partikular bakoitzaren ondorioak kasuz-kasu aztertu behar ditugu.

Kasu partikular honi aplikatuta, ekintzen utilitarista batek erabiltzaileari egia ez esatearen ondorioak kontuan hartu beharko lituzke. Horretarako, onuren eta kalteen analisia planteatu beharko luke: zeintzuk izango lirатеke gezurra esatearen onurak kasu partikular honetan? Eta kalteak? Kasu honetan, egia esateak erabiltzailearen sufrimendua eta depresioa handitzea inplikatu luke ziurrenik, erabiltzaileak drogekin duen arazoa larritzeko arriskuarekin. Zeintzuk izan daitezke egia esatearen onurak?

Egiazki, zailak dira zehazten. Agian Andonik bere neska lagun ohiarekin berriz ateratzen hasteko probabilitate handiagoak izan ditzake goiz enteratzen bada neskak beste batekin harreman bat hasi duela, berarekin gauzak konpontzen saiatzeko hitz egitera ausartuko zelako eta, agian, neskalagun ohiak oraindik Andoni maite duelako. Gainera, Andonik agian nahiago du egia jakitea haren sufrimendua handitu arren, baina agian nahiago du egia ez jakitea. Ez dakigu. Hortaz, ziurtasunez dakigun gauza bakarra egia esaterakoan Andoniren egoera psikologikoak okerrerantz joko duela da, zorigaitzaren kantitate totala handituz gure ekintzaren bidez. Gauzak horrela, egia esatearen ondorioak negatiboak izango zirenez, hau da, egia esateak onurak baino kalte handiagoak izango lituzkeenez, orduan, kasu partikular honetan, justifikatuta egongo litzateke Andoniri gezurra esatea ekintzen utilitarismoaren arabera.

2. Nola justifikatuko zenuke, arauen utilitarismoaren harira, Andoniri egia esatea (hau da, bere neska-lagun ohiaz daukazun informazioa ematea)?

Ekintzen utilitarismoa ez bezala, arauen utilitarismoak ez du ekintza bakoitzaren zuzentasun morala ekintzaren ondorioen arabera kasuz-kasu baloratzen. Arauen utilitarismoaren arabera, baloratu behar ditugun ekintzek kasuz-kasu ondorio onak dituzten ala ez kalkulatu beharrean, kasu gehienetan ondorio onak dituztelako jada moralizat jotzen ditugun arauak jarraitu beharko genituzke; hau da, orokorrean, kasu gehienetan ondorio onak dituzten arauak jarraitzeko betebeharrak morala daukagu.

Gauzak horrela, kasu partikular honi aplikatuta, arauen utilitarismoaren ikuspegitik egia esatea hurrengo moduan justifikatu daiteke. “Egia esateko betebeharrak morala daukagu” edo “gezurrik ez esateko betebeharrak morala daukagu” bezalako arau moralek, orokorrean, kasu gehienetan, gaitzak baino zoriontasun kantitate total handiagoa sortzeko joera izango balute, orduan, arau moral horiek jarraitzeko betebeharrak morala izango genuke, baita, kasu partikular honetan bezala, arauak jarraitzeak ondorio ezkorrak (zorigaitz kantitate total handiagoa) izango lituzketen kasuetan ere. Zergatik? Arauen utilitarismoaren arabera orokorrean, kasu gehienetan, kalteak baino onura kantitate total handiagoa sortzen duen araua jarraitzeko betebeharrak morala dugulako.

3. Nola justifikatuko zenuke, etika deontologikoaren baitan, erabiltzaile horri gezurrik ez esatea (hots, zintzotasunez erantzutea)? (Erantzunean era esplizituan azaldu behar duzu jarrera deontologikoak jarrera utilitaristarekiko erakusten duen desberdintasun nagusia.)

Utilitarismoaren kontra, etika deontologikoak ez du uste ekintzen balio morala ekintzen ondorioetatik eratortzen denik, ekintza egiteko asmoetatik datorrela uste baitu. Hortaz, ekintzak moralki onak izango dira borondate onarekin eta betebeharraren zentzuan oinarrituz burutzen badira. Etika deontologikoaren arabera, gustatu ala ez, gure betebeharrak nahi eta nahi ez betetzeko erantzukizuna daukagu, baita gure betebeharrak betetzea ondorio txarrak daukaten kasuetan ere. Arau moralek ez dute salbuespenik onartzen.

Nola erabaki dezakegu ekintza bat moralki onargarria den ala ez? Nola zehaztu dezakegu ekintza bat burutzeko asmoa morala ala immoral den? Kant bezalako deontologo batek, adibidez, inperatibo kategorikoen bidez auzi hauek konpondu ditzakegula uste zuen. Inperatibo kategorikoak ekintzak eta asmoak ebaluatzeko formulak dira. Inperatibo kategorikoaren lehenengo formulazioaren arabera, gure ekintzen maximak (asmoak) lege orokor bihurtzea nahi izango bagenu bezala bakarrik jokatu beharko genuke.

Kasu partikular honetan, orduan, Kanten jarraitzaileek hurrengo moduan pentsatuko lukete. Suposa dezagun erabiltzaileari egia esan behar diozun ala ez zalantza egiten duzula eta zure motibazioa egia esan ala ez zalantza egiteko ona dela: egia esateak Andoniri eragingo liokeen sufrimendua ekiditea. Hala eta guztiz ere, ekintza unibertsalizatu beharko zenuke eta, orduan, galdetu: nahi al dezakegu pertsona guztiek, haien ekintzek ondorio onak izango

lituzketela uste dutenean, gezurra esatea? Erantzun arrazionala ezezkoa da. Izan ere, horrek praktikan inplikatu luke pertsonak ia-ia nahi dutenean gezurra esateko baimena izango luketela edo, gutxienez, haien ustez gezurra esatea ondorio onak izango lituzketen kasu guztietan. Ez da arrazionala bakoitzak komeni zaionean gezurra esateko baimena duen mundu batean bizi nahi izatea, horrek gezurraren eta egiaren ideien baliogabetzea inplikatu bailuke. Beraz, kasu guztietan egia esateko betebeharrak morala daukagu, inolako salbuespenik gabe, egia esateak sufrimenduak handitzen dituenean ere (kasu honetan gertatzen den moduan).

4. Nola justifikatu zenuke, bertuteen etikaren ikuspegitik, erabiltzaileari egia esatea (hau da, bere neska-lagun ohiaz daukazun informazioa ematea)?

Utilitaristak eta deontologoak ez bezala, bertuteen teorikoak ez dira ekintzen zuzentasunaz nagusiki kezkatzen, izaeraren ebaluazio moralean zentratzen dira. Bertuteen etikak bi galdera nagusi planteatzen ditu: (1) Nola bizi beharko genuke? Erantzuna: bertuteak lantzen; eta (2) Zeintzuk dira pertsona on baten izaeraren ezaugarriak? Erantzuna: zintzotasuna, ausardia, eskuzabaltasuna, e.a. Bertute bat izaeraren ezaugarri ona, miresgarria eta/edo laudagarria da, bizio bat izaeraren ezaugarri txarra, mespretxagarria eta/edo gaitzesgarria den bitartean.

Bertuteen teorikoen arabera, gizakiok eudaimonia (loratzea, hau da, gure oinarrizko gaitasunen garapena) bilatzen dugu. Gainera, bertuteen teoriak partikularismo morala defendatzen dute: kasu partikularrek konpontzeko printzipio moral orokor abstraktuak erabili daitezkeen ukatzen dute, arazoak kasuz-kasu eta testuinguruaren ñabarduretan atentzioa jarri aztertu behar direla aldarrikatuz.

Kasu partikular honetan, bertuteen etikaren ikuspegitik, hurrengo galderak planteatu beharko genituzke: zeintzuk dira gizarte langile on baten izaeraren ezaugarriak? Gizarte langile on batek gupidatsua, ausarta, tolerantzia, zintzoa, zuzena, e.a. izan beharko lukeela erantzutea zentzuzkoa dirudi. Beraz, nola justifikatu liteke erabiltzaileari egia esatea bertuteen etikaren ikuspegitik?

Gizarte langileen helburu nagusia, gehienetan, erabiltzaileak laguntzea da. Orduan, Andoniri egia esateak Andoni laguntzeko balio ez badu (berez, seguruenik, kaltegarria izango da erabiltzailearentzat, sufrimendua eragingo baitio), badirudi Andoniri gezurra esateko betebeharra izan beharko genukeela. Hala ere, elkarren arteko konfiantza eta zintzotasuna gizarte langileen eta erabiltzaileen arteko harremanen funtsezko ezaugarriak izan beharko lukete. Zentzu honetan, gezurra esateak erabiltzaileak gizarte langilean duen konfiantza zapuztea ekarri dezake. Hortaz, agian, kasu honetan gezurra esatea, gupidan oinarritutako ekintza izango balitz ere, zintzotasuna bezalako bertute garrantzitsu baten kontra joango litzatekeela ondorioztatu dezakegu eta, gainera, gizarte langileen eta erabiltzaileen arteko harreman egokiarentzat ezinbestekoa den konfiantza hausteko arriskua inplikatu luke. Gauzak horrela, kasu honetan erabiltzaileari egia esateko betebeharrak morala dugula ondorioztatu genezake; hori bai, egia esateko momentu egokia bilatu beharko genuke, Andoniri ahalik eta kalte txikiena egiten saiatzeko, erabiltzailearen sufrimenduz errukituz.

Azkenik, gizarte langileak, haren iritziz ekintza moralki zuzena egin arren, nolabaiteko ahaldura sentitu beharko luke (emozioak garrantzitsuak dira bertuteen etikan), erabiltzailea sufriarazi baitu egia esaterakoan (auzi moralak erantzuten zailak dira eta ez daukate konponbide sinplerik).

2. ETIKA ETA GIZARTE LANGINTZA

Beharretan oinarritutako, Eskubideetan oinarritutako eta Merezimenduetan oinarritutako justiziaren ikuspegia

Andrea, Madrileko erdigunean dagoen osasun mentaleko zentro batean zuzendari gisa lan egiten duen gizarte langilea da. Duela sei hilabete, Madrileko Komunitateko Gobernuak diru laguntza bat eman zion Andreak lan egiten duen agentziari, kalean bizi diren eta gaixotasun mental larriak dituzten pertsonen emergentziazko aterpea eskaintzeko helburuarekin. Programaren helburu nagusia kalean bizi diren eta gaixotasun mental larriak dituzten pertsonen hilabete batzuetarako bizileku egonkorra eskaintzea da, beharrezkoa duten osasun atentzioa eta inklusio soziala bermatzeko gizarte zerbitzuen laguntza jaso dezaten zentroan (laguntza psikologikoa, adikzioen kontrako tratamenduak, hezkuntza eta lanerako gaitasun programak, e.a.). Zentroko erabiltzaile asko kartzelan egondakoak dira, ez daukate derrigorrezko bigarren hezkuntzako titulurik, ikasteko arazo handiak dituzte eta ez daukate ia lan esperientziarik. Programak bi bizileku-egoitza dauzka, bakoitza 25 pertsonentzako lekuarekin. Programa martxan jarri bezain laster, Andrea eta haren lankideek plazen eskaria plazen eskaintza baino askoz handiagoa zela ikusi zuten. Zentroan sartzeko itxarote-zerrenda oso handia bilakatu zen. Andrea eta programaren kudeatzaileek zentroan sartuko ziren eta zentroan sartuko ez ziren pertsonak aukeratzeko protokolo bat garatu behar zutela ulertu zuten.

Galderak:

1. Andrea eta kudeatzaileek beharretan oinarritutako justiziaren ikuspegia zentroan sartuko diren eta zentroan sartuko ez diren pertsonak aukeratzeko irizpide gisa erabiltzea erabaki dute. Nola justifikatu dezakete, ikuspegi honetatik, hartutako erabakia eta zer nolako auziak izan beharko lituzkete kontuan zentroan sartzeko eskariak ebaluatzerakoan?

Beharretan oinarritutako justizia sozialaren ikuspegiaren printzipio nagusiak, bitarteko materialak pertsonen beharren arabera banatu beharko liratekeela defendatzen du. Hortaz, behar gehiago dituzten pertsonen behar gutxiago dituztenek baino bitarteko material gehiago jaso beharko lituzkete.

Horrelako justizia sozialaren ikuspegi bat funtsatzen duen oinarritzko tesiak pertsonok gure oinarritzko beharrak ase edukitzeko eskubidea daukagula dio; izan ere, horrela ez balitz, giza bizitza ona edukitzea ezinezkoa bihurtuko bailitzateke.

Gauzak horrela, Andrea eta zentroaren kudeatzaileek, zentroan sartuko diren eta ez diren pertsonak erabakitzerakoan, erabiltzaile potentzialek haien oinarrizko beharrak ze neurritan ase dauzkaten aztertu beharko lukete, hala nola: gaixotasun mentalaren larritasuna, egoera nutrizionala, osasun/segurtasun fisikoa, hezkuntza maila, e.a., lehentasuna emanaz oinarrizko behar gehiago ase gabe dituzten erabiltzaileei.

2. Andrea eta kudeatzaileek eskubideetan oinarritutako justiziaren ikuspegia zentroan sartuko diren eta zentroan sartuko ez diren pertsonak aukeratzeko irizpide gisa erabiltzea erabaki dute. Horretarako, zentroan sartzeko eskariak ebaluatzerakoan, erabiltzaileen zerbitzuak ordaintzeko gaitasuna kontuan hartzea erabaki dute, zentroan sartzeagatik diru gehiago ordaintzeko prest dauden pertsonen lehentasuna emanaz. Nola justifikatu dezakete, justiziaren ikuspegi honetatik, aukeratutako irizpidea erabiltzaileak onartzeko/baztertzeko?

Eskubideetan oinarritutako justizia sozialaren funtsezko printzipioaren arabera, banakook gure lanari, talentuari eta/edo inbertsioei esker irabazitako ondasunak edukitzeko eskubidea daukagu, gure buruaren jabeak baikara. Beraz, bitarteko materialen banaketak bidezkoak dira zilegi bereganatutako jabetza eskubideak errespetatzen badituzte.

Justizia sozialaren horrelako ikuspegi bat oinarritzen duen ideia nagusia bitartekoen banaketa desberdinak justifikatuta daudela da, bereziki talentuak eta lan egiteko borondatea desberdin banatuta daudelako gizakion artean. Aldi berean, zerbitzuan sartzeko prozedura inpartzial bidezkoa zehazten bada, prozedura horren ondorioak bidezkoak izango dira, desberdintasun handiak sortzen badituzte ere.

Beraz, sarrera eskaerak ebaluatzerakoan, Andrea eta kudeatzaileek kontuan eduki beharko lukete zeintzuk izango lirateke zentroan sartzeko diru gehien ordaintzeko prest egongo liratekeen pertsonak, baina ziurtatu beharko lukete aldi berean erabiltzaile horiek dirua zilegi irabazi dutela, adibidez, lan egiten eta/edo ondasunen tranferentzia zilegien bidez.

3. Andrea eta kudeatzaileek merezimenduetan oinarritutako justiziaren ikuspegia zentroan sartuko diren eta zentroan sartuko ez diren pertsonak aukeratzeko irizpide gisa erabiltzea erabaki dute. Nola justifikatu dezakete, ikuspegi honetatik, aukeratutako ikuspegia eta zer nolako merezimenduak kontuan hartu beharko lituzkete zentroan sartzeko eskariak ebaluatzerakoan?

Merezimenduetan funtsatutako justizia sozialaren printzipio nagusiaren arabera, bitarteko materialak banakoen merituen arabera banatu beharko lirateke; hau da, gehiago merezi dutenek gutxiago merezi dutenak baino gehiago jaso beharko lukete. Justizia, azken finean, bakoitzari merezi duena ematean oinarritzen da.

Modu honetako justizia sozialaren ikuspegiak funtsatzen dituen ideia nagusiak dio pertsonak gure gaitasun edo talentu naturalen/bereganatutakoen arabera tratatuak izan beharko gukeela, non pertsonaren talentu eta/edo gaitasun horiek

bereganatzeko erantzukizuna ere kontuan hartu beharko litzateke (horiek lortzeko/hobetzeko lan egin duelako, adibidez).

Zentzu honetan, Andrea eta zentroaren kudeatzaileek, zentroan sartzeko sarrera eskariak ebaluatzerakoan, erabiltzaile potentzialek gizarte segurantzari eta/edo Madrilgo Komunitatearen diru-kutxari egindako ekarpenak kontuan hartu zitzaizketen adibidez, edo, bestela, erabiltzaile potentzialen gogo-gaixotasunak haiek libreki egindako ekintza arduragabeen ondorio diren ala ez baloratu (adibidez, droga kontsumo handi batengatik), e.a., lehenetsua emanez ekarpen handiagoak egin dituzten erabiltzaileei ala haien behar egoeraren erantzukizuna ez daukaten erabiltzaileei.

3. ETIKA ETA GIZARTE LANGINTZA

Benefizentzia paternalista, Anti-paternalista eta Benefizentzia ez-paternalista

Iñaki L. 72 urteko pentsioduna da. Bere emaztea duela bi urte hil zenetik bakarrik bizi da; bakarrik bizi nahi du. Iñakik bi alaba ditu, bere etxetik ehun bat kilometrora dagoen hiri batean bizi direnak. Belaunetan arazo batzuk izan arren, igogailurik gabeko eraikin bateko laugarren pisuan bizi da eta, oro har, mugikortasun arazoak ditu, eguneroko etxeko-lanak egitea zailtzen dizkietenak. Hori dela-eta, bere alabak istripuren bat izango duelaren beldur dira aspaldian eta, ardura horrek bultzatuta, gutxienez astean behin joaten zaizkio etxera bisitan, telefonoz egunero deika aritzearekin batera. Batez ere alabek hala eskatuta, gizarte-langileak zahar-etxe batera joateko proposamena egin zion orain dela hilabete pare bat, baina Iñakik uko egin zion zahar-etxera joateari. Berriki, ordea, alabek eta gizarte langileak egindako presioaren ondorioz, Iñakik zahar-etxera joatea onartu du, batez ere, eta bere hitzetan, “astunak baino astunagoak diren hauek (gizarte langileak eta alabek) bake santuan utz nazaten behingoz!”.

1. Zein zentzutan esan daiteke kasuak deskribatzen duen esku hartzea **benefizentzia paternalistari dagokiola? (Erantzuna ematean paternalismoaren ideia nagusien berri eman behar duzu.)**

Paternalismoa interbentzio profesionalean erabiltzaileari onurak egiteko edo kalteak ekiditeko saiakeraren justifikazioa da, hartutako erabakia erabiltzailearen borondatearen edo iritzia kontrako izanik ere (**hau da, erabiltzailearen autonomia edo askatasuna errespetatu gabe**). **Paternalismoak, ondorioz, ez du errespetatzen edo, gutxienez, asko mugatzen du erabiltzaileak erabaki propioak hartzeko duen askatasuna. Zentzu honetan, paternalismoak benefizentzia printzipioari (gizarte langilearen helburu nagusia ahalik eta modu eraginkorrean erabiltzaileen eta gizartearen ongizatea sustatzea dela dion printzipioa) autonomia printzipioari (erabiltzaileak, harreman profesionalean, bere ikuspegiak eta erabakiak kontuan hartuak izateko eskubidea daukala dion printzipioa) baino balio handiagoa ematen dio.**

Kasu honetan, interbentzioa paternalistatzat jo daiteke erabiltzaileak hasieratik garbi utzi zuelako haren desioa bakarrik bizitzen jarraitzea zela. Alabak eta gizarte langileak kezkatuta daude lñakiren segurtasunagatik, istripu larria izan baitezake egunen batean eta, zentzu honetan, garbi dago erabiltzailearen ongizateagatik kezkatuta daudela. Horregatik, lñaki presionatu dute berak hartu nahi ez zuen erabaki bat hartu dezan: zahar-etxe batera bizitzera joatea. lñakiren erabakia, orduan, zentzu batean ez da guztiz libreza izan, alabaren eta gizarte langilearen presioagatik eta astuntasunagatik hartu baitu erabakia. Gauzak horrela, alabak eta gizarte langileak erabiltzailearen ongizatea lehenetsi dute erabiltzailearen askatasunaren aldean, erabiltzailea, bere borondatearen kontra, interbentzio profesional eraginkorra onartzera behartuz zentzu batean, erabiltzailea presionatu baitute haiek proposatutako interbentzioa onartu arte, beti ere erabiltzailearen ongizatea bermatzeko helburuarekin.

2. Gizarte langile anti-paternalista batek nola kritikatu luke kasuak adierazten duen esku hartzea? (Arrazoitu erantzuna anti-paternalismoaren ideia nagusien berri emanaz.)

Paternalismoaren kontra, anti-paternalismoak gizarte langilearen eginkizun nagusia erabiltzaileen autonomia sustatzea eta errespetatzea dela aldarrikatzen du, erabiltzaileen autonomia eskubidea ia absolutu gisa ulertzen baitu (interbentzio profesionalaren eraginkortasunarentzat kaltegarria bada ere, hau da, erabiltzailearen ongizatearentzat erabakia hoberena ez bada ere). Anti-paternalismoak, orduan, autonomia printzipioari benefizentzia printzipioari baino balio handiagoa eskaintzen dio.

Gizarte langile anti-paternalista batek interbentzioa kritikatu luke erabiltzailearen hasierako borondatezko erabaki libreza errespetatua izan ez delako, erabiltzaileak garbi utzi baitzuen hasieratik bakarrik bizitzen jarraitu nahi zuela. Hala ere, erabiltzailearen borondatearen eta erabakiaren kontra, alabek eta gizarte langileak erabiltzailea presionatzen jarraitu dute, haren borondatearen kontra eta behingoz lasai uzteko gustuko ez duen erabaki bat hartu behar izan duen arte. Hau guztia garbi gelditzen da lñakiren hurrengo hitzetan: “astunak baino astunagoak diren hauek bake santuan utz nazaten behingoz!”. Beraz, bere ongizatearentzat arriskutsua izan arren, lñakiren borondatezko erabaki autonomia ez da errespetatu interbentzioan eta, ondorioz, interbentzioa gaitzetsi daiteke anti-paternalismoaren ikuspegitik.

3. Esku hartze hori benefizentzia ez-paternalistatzat hartzerik ere egongo litzateke: zergatik? Nola argudiatuko zenuke esku hartzearen ustezko benefizentzia ezpaternalistaren izaera?

Benefizentzia ez-paternalistaren arabera, gizarte langilearen lehenengo betebeharra erabiltzaileen eta gizartearen ongizatea modu eraginkorrean sustatzea bada ere, betebeharrak hau erabiltzaileen autonomiarekiko begirunearekin bateratu behar da. Benefizentzia ez-paternalista, beraz, benefizentzia printzipioa autonomia printzipioarekin bateratzen saiatzen da.

Kasu honetan, interbentzioa benefizentzia ez-paternalistaren adibide izan dela defendatu daiteke, izan ere, azken finean erabiltzailea izan baita zentzu batean libreki eta borondate propioz zahar-etxera bizitzera joatea erabaki duena. Alabengatik eta gizarte langileagatik presionatuta izan bada ere, inork ez du behartu azkeneko erabakia hartzea eta, zentzu honetan, erabiltzailearen autonomia errespetatu da. Gainera, benefizentzia ez-paternalistak baldintza batzuetan erabiltzaileen borondatezko erabaki autonomoak ez errespetatzea zilegi dela baieztatzen du, adibidez, erabiltzailearentzat aurreikusi daitezkeen berehalako kalte larriak eragiteko aukerak daudenean. Istripu larri bat sufritzeko aukera berehalakoa ez bada ere, erabiltzailearen egoera zein den ikusita (arazoak belaunetan, igogailurik gabeko eraikin bateko laugarren pisuan bizitzea, mugikortasun arazoak), pentsatu daiteke, agian, lehenago edo beranduago haren ongizatea arriskuan jarriko duen istripu larria izango duela. Hau, seguruenik, ez da nahikoa erabiltzailea zahar-etxe batean bizitzera behartzeko, baina nahikoa izan daiteke alaben eta gizarte langilearen presioak justifikatzeko. Gauzak horrela, interbentzioa benefizentzia ez-paternalistatzat jo daiteke; azken finean, erabiltzailearen ongizatea modu eraginkorrenean sustatzea lortu da, erabiltzailearen autonomia eskubidea errespetatu den bitartean, azkeneko erabakia erabiltzaileak modu libre eta borondatezkoan hartu baitu. Interbentzioak, orduan, benefizentzia printzipioa eta autonomia printzipioa errespetatu ditu aldi berean.